

AKTA: EZ OHIKO ETA URGENTZIAZKO BATZARRA

NOIZ: 2019ko urriaren 24an, 18:55tan

NON: Tolosako Udaletxeko Pleno Aretoan

BERTARATUAK:

UDALA	ORDEZKARIA	BIZTANLEAK	BOTO %
Aduna	Josu Amilibia Alsua	469	0,76%
Alegia	Maria Aranzazu Irazusta Etxeberria	1726	2,78%
Alkiza	Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez	374	0,60%
Altzo	Josu Astrain Azkona	427	0,69%
Amezqueta	Iñaki Amundarain Tolosa	939	1,51%
Andoain	Maidor Lainez Lazcoz	14618	23,58%
Anoeta	Pedro María Estanga Lasa	2034	3,28%
Asteasu	Aitor Usandizaga Izagirre	1533	2,47%
Baliarrain	Andoni Olano Manzano	137	0,22%
Berastegi	Amaia Azkue Eizagirre	1081	1,74%
Berrobi	David de Miguel Les	602	0,97%
Gaztelu	Edurne Garcia Azurmendi	153	0,25%
Hernialde	Aitor Zubillaga Celaya (*)	313	0,50%
Ibarra	Nagore Zubillaga (*)	4172	6,73%
Ikaztegieta	Bakarne Otegi Jauregi	488	0,79%
Irura	Gorka Murua Macuso	1862	3,00%
Larraul	Aitor Biestegui Fiallegas	253	0,41%
Leaburu-Txarama	Arkaitz Esnaola Huici	377	0,61%
Lizartza	Iñaki Azpiroz Beldarrain	602	0,97%
Orendain	Eneritz Olano Iriarte	218	0,35%
Orexa	Gurutze Etxezabal Iturrioz (*)	123	0,20%
Tolosa	Olatz Peon Ormazabal	19525	31,50%
Villabona	Beatriz Unzue Esnaola	5.881	9,49%
Zizurkil	Jose Maria Luengo Zapiirain	2.976	4,80%
24 UDALERRI-ORDEZKARI		60.883	98,20%

(*): Luis Arana Goya ordezkariaren ordezkapena Aitor Zubillaga Celaya zinegotziari eskuordetzen dionaren agiria aurkeztu du.

(*): Igor Zapirain ordezkariaren ordezkapena Nagore Zubillaga zinegotziari eskuordetzen dionaren agiria aurkeztu du.

(*): Garikoitz Balerdi Atxega ordezkariaren ordezkapena Gurutze Etxezabal Iturrioz zinegotziari eskuordetzen dionaren agiria aurkeztu du.

Idazkaria: Leire Arteaga Zumeta.

Ingurumen Teknikaria: Gemma Eceiza Mendiguren.

BERTARATU EZ DIRENAK:

UDALA	ORDEZKARIA	BIZTANLEAK	BOTO %
ABALTZISKETA	JON ZUBIZARRETA ALDAIA	320	0,52%
ALBIZTUR	IÑAKI ORBEGOZO ARROSPIDE	309	0,50%
BELAUNTZA	SILVIA MONEO CID	239	0,39%
ELDUAIN	OIHANA AMUNDARAIN ZUBILLAGA	239	0,39%
3 UDALERRI-ORDEZKARI		1.107	1,80%

Mankomunitatearen idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari.

Estatutoen 20.2 atalean xedatzen den Mankomunitateko zuzenbidezko biztanleen gehiengo absolutuaren ordezkari izango den botoen gehiengo absolutuak bertan daudenez, Batzarrak lehenengo deialdian baliozko eraketa du. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzerako jo dute bilerakideek.

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

1.- Bilkuraren urgentziari buruzko pronuntziamendua.

2.- 2019ko martxoaren 25ean hasierako onarpena emandako Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoen aldaketa porzeduari atzera egitea onartzea.

3.- Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoen aldaketa jardunbideari hasiera ematea eta hori bideratzeko aholkulari juridikoa kontratatzea.

4.- Mankomunitateko ordezkarien izendapena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorziorako.

1.- Bilkuaren urgentziari buruzko pronuntziamendua.

Lehendakariak azaldu die batzarkideei Gipuzkoako Hondakinen Kontsorziorako Mankomunitateko ordezkarien izendapenak egiteko Batzarraren deialdia urgentziazkoa kontsideratzen dela kontutan izanik legealdia duela hilabeteak hasi dela eta Tolosaldeko Mankomunitatearen ordezkariak izendatu gabe daudela.

Lehendakariak gaia bozkatzea proposatu du eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin erabakitzen dute Batzarraren urgentzia aitortzea.

2.- 2019ko martxoaren 25ean hasierako onarpena emandako Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuen aldaketa prozedurari atzera egitea onartzea.

2019ko martxoaren 25ean Tolosaldeko Mankomunitateak bere estatutuoak aldatzeko proiektu berri bati hasierako onarpena eman zion, 2018ko urriaren 28an hasiera batez onartutako (2018ko azaroaren 7ko GAO 214 zkia) proiektuaren prozedurarekin atzera egitea onartu ostean.

Proiektu horri zegozkion legezko tramiteak bete ostean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren derrigorrezko eta ez loteslea den legezko txostena egin ostean, zeinak zenbait aldaketa gomendatzen zituen estatutuen aldaketa proiektuaren idazkera hobetzeko, estatutu horien aldaketarekin atzera egitea proposatzen da.

Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten zenbait herritako ordezkari ez daude ados 2019ko martxoaren 25eko estatutuen aldaketaren edukiarekin eta gai horretan gehiago sakontzeko beharra adierazi dute. Hori dela eta, proposatzen dute aholkulari juridiko bat kontratatzea, bere laguntzarekin egun indarrean dauden estatutuen edukia aztertu eta proposamen berri bat aurkezteko.

Gaia aztertuta, bozketa egin dute eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin erabakitzen dute:

LEHENA.- 2019ko martxoaren 25ean hasiera batez onartutako (2019ko apirilaren 2ko GAO 63 zkia) Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuak aldatzeko proiektuaren prozedurarekin atzera egitea, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Arruntari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 93. Artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo arrazoiengatik:

- Estatutuak behin betikoz onartzeko ezintasunagatik. Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten zenbait udalentsako 2019ko martxoaren 25ean hasieraz onartutako estatutuen aldaketaren zenbait alderdi gehiago sakondu behar dira eta testuaren idazketa hobetzea beharrezkoa da.

BIGARRENA.- Erabaki hau Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalei eta Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako iragarkien taulan argitaratzea.

3.- Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoen aldaketa jardunbideari hasiera ematea eta hori bideratzeko aholkulari juridikoa kontratatzea.

Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoak eguneratu behar dira apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauak dioenari egokitzeko eta 2014 urtean onartutako udalek mankomunitateari egiten dizkioten aportazioen sistemaren aldaketa estatutoetan jasotzeko, beste batzuen artean.

Tolosaldeko Estatutuen 60 eta 61 artikuluetan arautzen da estatutuen aldaketa prozedura. Egun, indarrean dauden estatutuek aldaketa funtsezko eta ez funtsezkoen artean bereizten du, prozedura ezberdinak jaso z kasu bakoitzarentzako.

Proposatzen den aldaketak beste batzuen artean 56. Artikuluaren aldaketa dakar eta hori funtsezkoa da. Beraz, 60. Artikuluaren arabera jardun beharko litzateke.

60. Atala. Funtsezko aldaketak.

Estatutuen funtsezko aldaketa burutzeko segitu beharreko prozedura ondokoa izango da:

- Estatutuen aldaketa proposatzea Batzarrari dagokio, ukituko duen alderdia zehaztuz.
- Aldaketa proiektua egitea Batzorde Iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari.
- Behin proiektua onarturik, Foru Aldundira bidaliko da informea egin dezan.
- Estatutuak Udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin- betiko, kideetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik.

Prozedura hau apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauarekin osatu behar da, erakusketa publikoko hilabeteko epealdia erantsiz aipatu prozeduari.

Aitor Biestegui Fiallegas jaunak, Larraulgo ordezkariak, gaurko egunean onartzeko proposatzen den fasearekin kezka azaldu du. Idazkariak Tolosaldeko estatutuen aldaketaren prozeduran jarraitu beharreko pausoak argitu ditu, gaurko egunez onartzera proposatzen dena estatutuen aldaketaren proposamena eta proiektua egitea onestea izango litzateke, hau da, 60 artikularen lehen bi puntuak.

Gaia aztertuta, bozketa egiten dute eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin erabakitzen dute:

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuen aldaketa proposatzea, ondorengo alderdia ukituko duena, estatutuen eguneraketa orokorra, Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten herrien beharretara egokitzeko.

BIGARRENA.- Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak aldaketa proiektua egiteari ekitea eta horretarako aholkulari juridiko bat kontratatzea onartzea.

4.- Mankomunitateko ordezkarien izendapena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziorako.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren estatutuen 12. Artikuloak arautzen du Batzar Orokorreko kideen izendapena, honen arabera Kontsorzioko kide diren entitateetako ordezkariak osatuko dute Batzar Orokorra. Batzar Orokorreko izendatzen den kide bakoitzeko ordezeko bat aukeratuko da, titularrak utz lezakeen lekua betetzeko.

Kontsorzioko kide den entitate bakoitzak hiru ordezkari izendatuko ditu, Batzarreko ordezkariak ahalik eta pluralena izango den moduan.

Lehendakariak Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioko Batzarreko kideak izendatzeko proposamenak aurkezten ditu:

Lehen kidea titularra: Olatz Peon Ormazabal andrea (Tolosako Udala) Ordezkoa: Silvia Moneo Cid andrea (Belauntzako udala)

Bigarren kidea titularra: Mainer Lainez Lazcoz andrea (Andoaingo udala) Ordezkoa: David de Miguel Les jauna (Berrobiko udala).

Hirugarren kidea titularra: Gurutze Etxezabal Iturrioz andrea (Orexako udala) Ordezkoa: Josu Amilibia Alsua jauna (Adunako udala).

Bozketa egin dute eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin, salbu Alkizako ordezkaria zeina abstenitu egin den, proposamena onartu dute.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko hemeretzi orduak eta hogeita hamar minutuak direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA